

AGIRI ADMINISTRATIBOAK EMATEAGATIK EZARRITAKO TASAK ARAUPETZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikulua eta Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua ezarritako ahalmenak erabiliz, eta Tokiko Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauaren 15-19. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Udal honek agiri administratiboak emateagatik ezarritako tasak zehaztu ditu. Tasa horiek ordenantza fiskal honek araupetuko ditu.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. artikulua

1. Tasaren zergapeko egitatea da administrazioak ematen dituen era guztietako dokumentuak eta administrazioari edo udal-agintariei dagozkien espedienteak alderdi batek hala eskatuta izapidetzeak dakarren administrazio-jarduera.

2. Bada, alderdi batek hala eskatuta izapidetukotzat joko da partikularrak eskatutako edozein administrazio-dokumentu, baita partikularentzat onuragarri den edozein administrazio-dokumentu ere, nahiz eta interesdunak berariazko eskaerarik egin ez.

3. Ez daude tasa honen menpe zerga-betebeharrak betetzeko behar diren agiri eta espedienteak izapidetzeko lanak, ezta zergei buruzko galderak, egin behar ez ziren diru-sarrerak itzultzeari buruzko espedienteak, era guztietako udal-erabakien aurkako administrazio-helegiteak, beste udal-tasa batek edo prezio publiko batek kargatzen dituen Udalaren eskumeneko zerbitzuei edo jardueri dagozkienak eta Udal honen jarariko ondasunen erabilera edo aprobetxamendu bereziei dagozkienak ere.

III. ZERGAPETUAK

3. artikulua

Zergapeko subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak, eta erakundeak, dokumentua edo espedientea izapidetzea eskatzen edo eragiten dutenean, edo izapidetze hori eurentzat onuragarria denean.

IV. ERANTZULEAK

4. artikulua

1. Subjektu pasiboaren zerga-betebeharrei solidaritatez aurre egingo diete Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta

juridikoek.

2. Erantzule subsidiarioak izango dira sozietateen administratzaileak eta sindikoak, baita kiebren, lehiaketan edo era guztietako sozietate eta erakundeen kontu-hartzaile edo likidatzaileak ere, Zergei buruzko Foru Arauko 42. artikulua aipatzen dituen egoeretan eta neurrian.

3. Kasu orotan, zergei buruzko legerian jasotako beste erantzukizun-baldintzetan ezarritakoan eragin gabe, jardueren administratzaileak izango dira, subsidiarioki, jarduera horiek bertan behera utzi dituzten pertsona juridikoen betebeharrak bete gabeen erantzuleak.

V. ZERGAREN KUOTA

5. artikulua

Zerga kuotaren zenbatekoa izapidetu beharreko dokumentuen edo espedienteen izaeraren arabera izango da, honako artikuluko honetako tarifa hauetan ageri denarekin bat etorruta:

VI. TARIFA

6. artikulua

Aurreko paragrafoak aipatzen duen tarifa honako epigrafe hauen bidez dago egituratuta:

Tarifak	
1. Arma-txartela ematea	3,76€
2. Botereen askiespenak	18,89€
3. Udal-jarduerekin lotutako buletinen eta bestelako dokumentuen kopia bakoitzeko (alde bakoitza)	
DINA 4 Z/B	0,20€
DINA 4 KOLOREA	0,55€
DINA 3 Z/B	0,30€
DINA 3 KOLOREA	0,80€
DISKETEA EDO CD EUSKARRIA	3,05€
4. Bibliotekako fotokopiak (alde bakoitza)	
DINA 4 Z/B	0,15€
DINA 4 KOLOREA	0,35€
DINA 3 Z/B	0,25€
DINA 3 KOLOREA	0,55€

DINA 4 Z/B PAPER BEGETALA	0,30€
DINA 4 KOLOREA PAPER BEGETALA	0,50€
DINA 3 Z/B PAPER BEGETALA	0,50€
DINA 3 KOLOREA PAPER BEGETALA	0,80€
5. Udal-espeditetako dokumentazioa konpultsatzea:	
1 folio	1,25€
2 eta 10 folio bitartean	3,59€
10 foliotik gorako folio bakoitzeko	0,21€
6. Agerraldiak eta <i>apud acta</i> botereak	18,89€
7. Alderdi batek hondamendi-aitorpenari buruz eskatutako txostena	52,78€
8. Txakur arriskutsuak edukitzeko lizentzia ematea	32,67€
9. Arriskutsua izan daitekeen animalia bakoitzaren erregistroa	32,67€
10. Lizentzien kopiak ematea	10,89€
11. Kontsulta egitea zergen behin-behineko likidazioak baino lehen	5,45€

VII. KUDEAKETA ETA DIRU BILKETA

7. artikulua

1. Tasa eta zerga ordaintzeko beharra sortzen da jarduera edo espedientea hasten den eskaera aurkeztean. Hori ez da gauzatuko edo izapidetuko dagokion ordainketa egin gabe.

2. 2. artikuluko 2 zenbakiari dagozkion kasuetan, sortzapena sortzen da udalaren ofiziozko jarduera dakarten baldintzak gertatzen direnean edo Udalaren jarduera interesdunarentzat onuragarri denean, nahiz eta berak hasteko eskatu ez.

3. Tasa hau 6. artikuluan adierazitako idazki eta dokumentuak aurkeztean ordainduko da, eskudirutan, dagokion ordainagiriaren kontra.

VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

8. artikulua

Zergei dagozkien arau-hausteak kalifikatzeari dagokionez eta arau-hauste bakoitzari kasuan kasu dagokion zehapenari dagokionez, aintzat hartuko da Zergei buruzko Foru Arau orokorreko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

IX. AZKEN XEDAPENA

Zergaren araupetzean aurrekontuei buruzko foru-arauetan edo zuzenean aplikatu beharreko bestelako arau edo xedapenetan egiten diren aldaketek, bidezkoa bada, Ordenantza Fiskal honen aldaketa tazitua eragingo dute.

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2018ko urriaren 23an eginiko bilkuran aldatu da, bere indarraldia 2019ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo bertan behera uztea ebazten den arte. Ordenantza Fiskal hau zati batean aldatuz gero, aldatzen ez diren artikuluek indarrean jarraituko dute.